

BERIAIN SAKANAKO ZAINDARIA

Euskal Herriko mendizale askorengatik da maitatua Beriain mendia. Bere itxura ederra eta kokapenak egiten du mendi berezia euskaldunontzat. Nafarroako ipar-mendebaldean kokatzen den Sakanako erraldoiak Urbasa-Andia natura-parkea hartzen du bere gain. Tontoretik iparralderantz Aralar eta Gipuzkoa osoko tontor aipagarrienak ikusiko ditugu, ekialderantz, berriz, gure Auñamendi magikoa. Mendebalderantz begiratuz gero, Aizkorri-Aratz, Gorbeia eta Durangaldeako mendi harritsuak eta hegoalderantz Urbasa eta Erriberako mugak ikusteko parada izango dugu. Euskal Herriko zilborrean gaude, gure herriaren erdigune geografikoan eta horregatik du Andimendi mendilerroak garrantzi mistikoa.

Tontorrean San Donato edo San Kaietano izenez ezagutzen den ermita/babeslekua aurkituko dugu, 400 urte inguru dituen ermita zoragarria. Euskal Herri osoan zehar aurkitu ditzakegu baselizak mendien gailurretan, bere garaian leku estrategikoak izandakoak. Beste leku askotan bezala, bertako toponimia kristau izen bategatik ordezkatu zuten, horregatik erabiltzen dira San Donato eta Beriain izenak mendia kokatu edo aipatzeko, San Kaietano alde batera utziz.

Sakanako erraldoiak Urbasa-Andia natura- parkea hartzen du bere gain

Aralar eta Urbasako mendikateak banatzen dituen hesi erraldoia dugu mendilerro luze hau eta honen mendean. Gasteizetik Iruñara doan barnera-ezineko autobidea (A-10), Euskal Herriko biodibertsitatearen konexioak bitan zatitzen duena, Urbasa-Andia eta Aralarako fauna eta floraren joan etorriak zailtzen dituenak. Horregatik, testu honen bidez azpimarratu nahi dut gure herriaren korridore ekologikoek duten garrantzia. Hona hemen, Andimendiko tontor garrantzitsuenetara igotzeko auke-

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Gotzon Irazola Moreno.
(Elorrio, 1980).

Lanbidez Informatikaria, tarteka mendizalea. Txikitatik ibili da gure baso eta mendien lurri-
na dastatzen eta hortik datorkio mendiarekiko duen maitasuna. Euskal Herriko mendietan eman ditu etengabe azken urteak, ohikoak diren bideak eta igoe-
rak alde batera utzi eta igoera berri eta zaharrak berreskuratzeko. Ertzak gustukoak dituen mendizalea. Hau guztia, <http://www.mendiakbat.eus> blogean irudikatzen du, egiten dituen irteera eta aktibitateak guztiontzat partekatuz.

ra desberdin batzuk, mendizale ororentzat mendi eder honek eskaintzen dituen ingurune ezezagun batzuk erakutsiz.

IGOERAK HEGOALDETIK

UNANU HERRITIK

Beriain & San Donato tontorreraino doan bide hau, urtero bertaratzen diren milaka mendizalek erabiltzen dutena da, guztien artean erabiliena. Urte askotako erosioaren ondorioz, Lizarragako portutik ondo bereizten den bidea da. Unanuko elizatik gora doan bidea hartuko dugu, ez dago galtzerik, ibilbide osoan kartel ugari markatzen baitute norabidea. Bideetik gora goazela, ganadua babesteko burdin Babatzeko langa aurkituko dugu, zabaldu, zeharkatu eta berriz ondo itxiko dugu ganadua ez galtzeko. Minutu batzuk geroago, Iturtxiki iturrira helduko gara eta aurrez-aurre, Beriain tontorreraino doan bidea argi ikusiko dugu. Aldaiko belazea zeharkatzen duen bidea gogorra da, baina igoera tipi-tapa eta astiro beteko dugu. Oso eroso egiten den ibilbide zoragarria da, hegoaldean ikusiko ditugun Urbasako baso eta lurrek es-



Akerregiko paxa edo Faja II.

kaintzen diguten paisaiak gozatzeko aukera emanez. Azkenengo tartea tontorreraino goi-lautadatik egiten da Beriaingo erpin geodesikoraino heldu arte.

LEZIZAGOAKO LEPO ETA ARROTIK

Aurreko igoeran aipatu bezala, lehen tartea Iturtxikiko iturriraino beteko dugu. Iturrian, ekialderantz doan pista edo Lezizagoako bidea hartuko dugu. Bideak, Beriaingo hego-aurpegi osoa zeharkatzen du, oihan itxura hartzen duen pagadi erraldoi bat zeharkatuz. Udan, eta bero handia egiten duenean, itzalean egi-



ten den igoera goxoa da. Bidea, Lezizagoako leporaino igotzen da eta bertatik, ezkerrean daukagun Lezizagoako harrirtza igoko dugu Beriaingo mendilerroko gaina ondo hartzeko. Hemendik Beriain tontorreraino ibilbidea oso lasaia gertatuko zaigu, Lezizagoako tontorra eta Euskal Herriko erdigune geografikoa bisitatzeko aitzakia perfektua izanik.

DORRAO HERRITIK

Dorrao herritik ere igo daiteke bailarako erraldoiaren gailurreraino, baina ez da bide-rik erabili, Iturtzikiko iturrian Unanutik


datarren bidearekin bat egiten du eta. Kontuan izan eta erne ibili beharra dago, Dorrao herriaren gainean dagoen saiaren janlekua-ekin, hesiaz babestutako atal edo eremu ikusgarria baita; sai, sai zuri eta ugatz gutxi batzuen janlekua.

GOÑI HERRITIK

Beriain tontorrera doan bide luzeena Goñi herritik hasten dena da. Herriko plazatik gora doan pista hartu eta San Migel-txo basiliza edo ermitaren ondotik pasako gara. Aurrerago, ganadua ez pasatzeko

burdinazko langa batekin topo egingo dugu, zeharkatu eta pista atzean utziko dugu. Eskuinean ikusiko dugun pagadi ikusgarri batean murgilduko gara, barrutik basoa zeharkatzen duen bide batetik. Altos de Goñi izena duen historiaz beteriko bide zaharra. Pixkanaka pagadia atzean utziko dugu malda luze batekin topo egin arte. Aldapa igo eta gero, jadanik Beriain eta Lezizagoako bazterrak bistan ageriko zaizkigu. Tontorreraino doan bidea oso ondo bereizten da. Tontorreraino doan azken tarte hau oso atsegina egiten da eta ez dago galtzerik. Argi ibili laino egunetan!

BERIAIN Hegoaldeko igoerak



IGOERAK IPARRALDETIK

UHARTE ARAKIL HERRITIK

Uharte Arakil herrian hasi eta hegoalderantz doan bidea hartuko dugu, Itxesi kalerantz hain zuzen. Kalea zeharkatu eta Uharteko igerilekuetara helduko gara. Puntu honetan, hegoalderantz doan ibilbide eroso

hartuko dugu haritz zahar eta ederrak atzean utziz. Aurrean Autzasoroburuko landa eta gainean Beriaingo iparraldea zeharkatzen duen igoera eder eta eroso. Ibilbidea pagadi magikoetan barneratzen da, Auntzaldapa ize-nez ezagutzen den zati ederrean. Pagadi edo basoa atzean utzi eta bi aukera izango ditugu. Lehenengoa eta ezagunena, Uharte mendateraino doan ibilbidetik gora egitea izango litzateke eta bigarren aukera, berriz, kilometro bertikala ospatzeko erabiltzen den igoera, zerbait bortitzagoa, eskuinera egin eta gorantz zuzenean doana. Bi kasuetan, gora iristean eskuinera egin eta San Donatoko ermita gertu ikusiko dugu.

Ibilbidea pagadi magikoetan barneratzen da

MOTEAUNDIKO KANALA

Oraingoan, berriz, Uharte Arakil herrian hasi eta Itxesi kalerantz doan bidea hartuko dugu. Auzoa zeharkatu eta herriko igerilekuetara helduko gara. Hemendik hegoalderantz irteten den mendi bidea hartu eta Autzasoroburuko landa ederrera zuzenduko gara. Landatik, aurrez-aurre Moteaundiko kanala nabarmena azalduko zaigu. Kanalaren hasiera ondo hartzeko ez dago biderik eta intuizioak edo senak hartzen du protagonismo osoa. Pagadi eta harizti ederrak zeharkatu eta kanaletik behera datorren harrizaren azpian kokatuko gara, kanalaren hasieran. Lehengo zatia ondo igotzen da, harriztatik gora egiteak daukan zailtasun hutsarekin. Nola edo hala

harriztatik gora egingo dugu hurrengo irtengunearen azpian kokatu arte. Eskailera handi baten forma hartzen duen irtengune deserosoa, pioletarekin eroso egiten den irtengunea. Altuera irabaziz kanala estutzen hasiko da, lehenko irtengune aipagarriaren azpian kokatu arte. Irtengune mixtoa, harriz eta belarrez hornitutako igoera polita. Pagoak desagertu eta hurrondoek hartzen dute protagonismo osoa kanalaren aldeetan, seguruak egiteko leku aproposak.

Hurrengo metroko ez dira asko aldatzen, elurrak eta izotz apurrak sortzen duten zailtasun bakarrarekin. Baina neguko mendi material egokia erabiliz gero, tarte hau ondo egiten da. Kanalaren erdian gutxi gora behera, igoeraren irtengune aipagarriena aurkituko dugu, 3 metro inguru dituen korridore estua, tximinoa forma hartzen duen igoera bertikala (3 m/IV°). Elurraren kalitateak kalifikatuko du irtengunea. Elur falta topatu ezker, harria bistan ageriko da, oso harri landu eta labainkorra. Irtengunea atzean utzi eta gora doazen korridoreak ondo aztertuko ditugu. Berriz kanalaren pil-pilean gaude, paisaia alpinoa Euskal Herriaren bihotzean. Igoera zerbait lasaitzen da oraingoan, igoera asko gozatzeko zati aproposa.

Paisaia alpinoa Euskal Herriaren bihotzean

Azpian, Moteaundiko kanalaren amildegia ikaragarria. Txirrista erraldoiaren forma hartzen duen kanal luzea. 70 m inguru kanaletik gora egin eta hirugarren irtengunera helduko

gara, bilera egiteko leku aproposa, bertan aintzinean instalatutako hiltze eta soka bat aurkituko ditugu. Irtengunea ondo babestuta igo eta pixkanaka Beriain-San Donatoko goi-lautadatik jaisten diren pareta ikaragarriak aurrez aurre aurkituko ditugu, itxuraz igaroezinak. Aurretik i greko forma hartzen duten korridore luzean bi aukera ditugu. Ezkerreko korridoreak aukeratu eta astiro gora egingo dugu, igoeraren atal ederrenean asko gozatzuz. 60 m inguru dituen korridore estu eta basatia Beriain mendiaren bihotz bihotzean. Korridoreak belarrez estalitako faja batera ematen du, elurrak gutxi irauten duen zatia. Belarrak eta aldaparen graduazioak (60°/65°), elurra jaistea eragiten du, baina neguko materiala ondo erabiliz gero, ondo igotzen den faja belartsu eta izoztua da (30 m), ingelesez "Drytooling" moduan ezagutzen den estiloan. Konturatu gabe, azkenengo metroetan gaude, goi-lautadatik jaisten diren paretan ondoan. Orain, ibilbidea horizontalean egiten da, paretaren ondolik eta kanalaren irteera zabala topatzen. Amaiera, goitik datorren paretaren pitzadura zabal batetik egiten da, tontorretik hegoaldera jaisten den pitzadura erraldoi eta nabari batetik. Moteaundiko paisaia dotore eta beldurgarriak. Pitzadura atzean utzi eta tontorreko lautadan azalduko gara.

AKERREGIKO PAXA

Berriz Iturtzikiko iturria erreferentzia moduan erabilia, Lezizagoako bidea erabiliz hasiko

gara ibiltzen. Kilometro bat ibili eta gero, ezkerrean doan mendi-bide bat hartuko dugu, pagadian barneratzen den ibilbide nabaria. Bidea oso ondo bereizten da eta harriz jositako marka ugari aurkituko ditugu igoera osoan. Astiro eta sigi-sagan bide luzea eginez joango gara. Goian eta pagadiaren hostoen artean, Beriaingo hormak bereiztuko ditugu. Harrizko hesi erraldoia ematen du. Pagadia gure gibelean utzi eta bidea ekialderantz zuzenduko da, horma erraldioen azpitik hain zuzen ere. Labittuko harrizta edo Labittu izenez ezagutzen den zatia. Orain bidea horizontalean egingo dugu, Artazil inguruko hormaren bila joanez. San Donatoko baselizatik behera doan horma ikaragarria da Artazil ingurua, hegaztien paradisu eta gordeleku.

Harrizko hesi erraldoia ematen du

Azpian, Lezizagoako sakana edo bailaraz gozatzeko aukera ederra edukiko dugu, Andimendik ondo gordetzen duen pagoz osatutako oihan oparo eta ikaragarria. Aurretik, haziendak edo ganaduak asko erabiltzen duen bidea daukagu, ardi latxaren lurretan. Artazilgo hormak atzean utzi eta, bat batean, ezkerrean Akerregiko faja edo bidera igotzeko aukera ugari aurkituko ditugu. Beriainek, ezkutuan, hegoaldeetik gailurreraino ondo gordetzen dituen ateak edo pasabideak. Fajara ondo sartzeko edo igotzeko hiruzpalau aukera ditugu, eta zailena, lehenengoa da. Aurrerago badaude

beste aukera errazagoak, harrizta batetik igotzea besterik ez diren aukerak. Edozein aukera balio zaigu Akerregiko bidera igotzeko.


Goian gaudela eta aurretik, 600 m inguru dituen faja zoragarri batekin topo egingo dugu. Auñamendietan aurki ditzakegun faja askoren itxurarekin. Beriaingo hegoaldeko aurpegi osoa zeharkatzen duen bide ezkutua. Ibilbidea eroso egiten da, beti azpian daukagun amildegia kontuan hartuz. Azken zatia bat batean bukatzen da, irteerarik gabeko tarte batean gaudela emanez. Orain dator ibilbidearen ezustea, ezkerrean ondo gordeta, gora egiteko dagoen pasabide estua. Bigarren graduako eskalada eroso. Pasabidetik gora egin eta minutu batzuk geroago Beriain gaineko goi-lautadan agertuko gara. Tontorreraino doan bidearen ondo ondoan.

BERIAINPUNTAKO ARRAILA

Sakanaren bihotzean, eta Gasteizetik gatzela, San Donatoren muturrean oso nabaria somatzen den ebakia: Bazkalaitzeko pitzadura famatua. Andimendi mendilerroaren aurpegi basatiaren marka edo logoa. Pitzadurara hurbiltzeko aukera asko daude, hona hemen hiru:

UBEIKO UR-JAUIA ETA ELKEZKO BELAZEA

Unanuko elizatik gora doan bidea hartuko dugu, ez dago galtzerik, ibilbide osoan kartel ugari markatzen baitute norabidea. Bidetik



gora goazela, ganadua babesteko burdin Babatzeko langa aurkituko dugu, zabaldu, zeharkatu eta berriz ondo itxiko dugu ganadua ez galtzeko. Minutu batzuk geroago, Iturtxiki iturrira helduko gara eta aurrez-aurre, Beriain tontorrera doan bidea argi ikusiko dugu. Aldaiko belazea zeharkatzen duen bidea gogorra da, baina gure kasuan, bide hau alde batera utzi eta ezkererantz doan bide bat bilatuko dugu. Ubeiko ur-jauzien bila goaz, lhubainen sakonetik kanpora doazen ur jauzi majikoak. Andimendiko akuiferoak beteta daudenean, Ubeiko zulotik ur-jauzia sortzen da. Hurbiletik gozatzeko festa. Ubeiko ur-jauziak rapelatzeko aukera badago, arroilen zale edo maitaleentzako toki aparta.

Sakana bailara osoko perspektiba ederraz gozatzeko leku aparta

Ur-jauzia atzean utzi eta harrizta batetik egingo dugu gora. Deseroso egiten den zatia. Noizbehinka atzera begiratu dugu, Ubeiko mandioak eta ur-jauzien paisaiaz gozatzeko. Sakanako bitxi polita ur asko daramanean. Orain, berriz, oteaz jositako zelai batetik egingo dugu gora, bidea galtzen den igoera zikin batetik. Zelaia nola edo hala igo eta lehenengo irtengunearekin egingo dugu topo. Hiruzpalau metro inguru dituen zatia, eta

zailtasun puntu batekin igotzen dena. Lehenengo zailtasun aipagarriena atzean utzi eta Elketz izeneko paretarekin aurrez aurre topo egingo dugu. Goiko pitzaduratik jaisten den horma erraldoia. Zati hau izango da pitzadurara hurbiltzeko biderik ederrena. Auñamendietan aurkitu ditzakegun faja askoren itxura hartzen baitu, distantziak gordez. Fajaren zeharkaldia egin eta pagadian barneratu gara, orain eskuinera maldan gora eginez. Gora goazela, pagoen adarrak helduleku bezala erabiliko ditugu lurra oso ezegonkorra dago eta. Pagadia atzean utzi, eta Elkezgo belaze magikora helduko gara. Sakana bailara osoko perspektiba ederraz gozatzeko leku aparta. Orain zelaia zeharkatu dugu hegoalderantz pitzaduraren sarrerarekin aurrez aurre topo egin arte.

“Unanuko jendeak bazakien zer ordu izaten zan Elketza begiratura: eguzkiaren itzalak arri zuri bat arrapatzen zuenean, amaika ta erdiak iza ten ziran puntu-puntuan. Etzuen utsik egiten. Elketz baso baten izena, San Donatoko maldan dagoana.”


*Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak liburutik (142 orr).
Jose Agustin Garziandia*

“Elketz (Beriain azpian dagoan toki bat; an badago arri bat, eta eguzkiaren itzalak arrapatzen duenean, goizeko amaika t’ erdiak puntu-puntuan izaten dira urte guzian. Orregatik, jende guzia ara begira egoten giñan, sorotik edo beste nunbaitetik, zer ordu zan jakiteko; eta Etxarriko elizaren dorrea eguzkiak edo itzalak arrapatzen zuanean, Una nutik begiratura, arratsaldeko bost eta erdiak izaten ziran).”

*Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak liburutik (206 orr).
Jose Agustin Garziandia*

ELKEZBIDE EDO HEGOALDEKO PAXA

Ihurbaingo pitzadurara hurbiltzeko dagoen bide polita eta eroso. Beriango hegoaldean, aintzinean Aldai eta Elkezgo belazeak komunikatzeko erabiltzen zen bide bertikal eta ederra. Sakana bailarako hego-mendebaldea miresteko bide zoragarria. Lehen aipatu bezala, Iturtxikitik gora doan bide ezaguna erabiliko dugu oraingoan, Elorriagoako pagadia zeharkatuz, ehun urtetik gorako pago sendo eta zaharrez hornitutakoa ondo dastatuz. Pagadia zeharkatu



Arrailaren barnetik.





Beriaín / San Donato.

eta Aldai inguruko zelaietara helduko gara. Aldaiko belazea, mendizale askoren ibilbideak asko eraldatu duen zelai edo tokia da, tontorreraino doan bidea ondo bereizten da maldan gora, ebakiondo sakon baten itxura hartuz. Baina guk, Aldai inguruko zelaiak eta bidea eskuinean utzi eta ezkererantz doan bideska baten bila abiatuko gara, Mearrako amildegia zeharkatzen duen bidearen bila hain zuzen ere.

“Mierra/Mearra (oso leku txarra; xenda bat dago, Elketzara faten dana, etaazienda gorriak ara sartzen ziran polik -poliki jaten-jaten, eta ezin buelta artu, eta makiña bat erortzen ziran).”

*Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak liburutik. (229 orr).
Jose Agustin Garziandia*

Mendiko haziendak erabiltzen dituen bidetik aurrera egingo dugu, ondo bereizten den bide estu batetik, Elkez bidetik. Azpian, Mearra inguruko amildegia edukiko dugu, bertigoa duenarentzat leku oso deser osoa. Pitzadurara heltzeko azkenengo metroak beherantz egiten dira, Beriaín puntaren muturra ezkerretik inguratuz.

IZOZPETAKO BIDEA

Unanutik R-282 Artzain bidea hartuko dugu, aintzinako artzainek erabilitako ibilbide luze eta ederra, Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ibilbide luzea, Arantzazun hasi eta bukatzen dena. Bidea Uhartte Arakil herrira doala ematen du Beriaingo mutur osoa inguratuz. Lepo itxura hartzen duen zati batera heldu eta eskuinera joango gara mendi-bide estu batetik. Ez dago galtzerik, Beriaingo puntaren iparraldean gaude, muturraren ezke-



Arraila negu giroan. Egoitz Elduayen.



rrean hain zuzen. Pixkanaka, hariztiak eta zelaia atzean utzi eta Izozpetako pagadian barneratuko gara, fauna anitzaren gordeleku. Gora goazela, harrizta luze bat agertuko zaigu aurrez aurre, igoeraren atal bertikalena.

"Izkueta, Izozpeta (beti izotza izaten dalako du izen hori, eta oso leku txarra da, Beriain azpian eta Huarte aldera)."

*Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak liburutik (208 orr).
Jose Agustin Garziandia*

Harriztaren gainean, Leguerko eta Aldaiko mandioak argi ikusten dira. Beriain puntatik jaisten diren horma ikaragarriak. Astiro, Beriainpuntatik behera datozen hormen ondoan kokatu eta mendebalderantz ibiltzen hasiko gara, ibilbide horizontal zoragarria. Mutturra inguratu eta Elkezgo belazera helduko gara; Beriainpuntako arrailaren sarrera ondoan daukagu.

BERIAINPUNTAKO ARRAILAREN IGOERA

Aurrez aurre Bazkalaitzeko pitzadura edo Beriainpuntako arraila, gorputzaren adrenalina goraino jartzen da toki magiko honetan. Euskal Herrian ditugun paisaia basatienetarikoa. Lehenengo tartea eroso igotzen da, arrailatik behera datozen harriztak alde batetik edo bestetik ondo saihestuz. Pixkanaka pitzaduraren bihotzean barneratuko gara.

LEHENENGO IRTENGUNEA. Arraila edo pitzaduraren irtengune zailena. Igoera bi erara egin daiteke, pitzaduraren jatorrizko bidea zuzena jarraituz (III+) edo ezkerretik gora doan eskalada bide bat erabiliz. Azken hau, iltze eta "spit" batekin ondo bereizten da (III).

BIGARREN IRTENGUNEA. Oraingoan, zailtasuna zerbait jaisten da. Pitzadura asko estutzen den zati edo luzetxo. Gora egiteko jarrera ondo pentsatu behar da. Eskuak sartu edo erabiltzeko toki, horregatik gorputzaren jarrera da garrantzitsua. Urdukitasun puntu bat pasatzen den tartea.

HIRUGARREN IRTENGUNEA. Guztietatik errazena, asko jota, 3. gradura heltzen den tartetxo. Zati honetan asko gozatzen da gora eginez. Tontorreraino 40 m inguru geratuko dira, lasai eta eroso egiten den azken tartea. Irteeran, bilera eroso bat egin daiteke, igoeraren azken atal hau lasaiago egiteko.

(Bidearen zailtasun eta graduazioak, *Aristas y Crestas de EH* liburutik, Javier Iturrutxa.)

